



600 GAZTETXO ARITU DIRA SHANTI TROFEOAN

Atzo jokatu ziren Tolosako Usabal kiroldegian txapelketako bost finalak; ikusle ugari elkartu ziren bertan » 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-01-07**

VIIIURTEA 1.896.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Albizturko Ogi-Ona okindegian familian gaupasa egin zuten, Errege opil goxoak prestatzeko helburuarekin. HITZA

ETXEKO MAHAI GEHIENETAN ERREGE OPILA IZAN DA IZARRA

EGUBERRIAK Okindegietako erakusleihatetan Errege opilak atzo bata bestearen ondoan pilatu arren, erruz saldu ziren » 3

IGOR OBESO ARTISTA

«Itsasoko formak lortzeko niretzat beira oso aproposa da»

TOLOSA GKo arte galerian Obesoren 'Aquatica' erakusketa aurkitzen da; hilaren 30a bitarte bertan egongo dira artistaren beirazko lanak » 4-5



A. IMAZ

Ingurumena ardatz duen erakusketa Aranburun

TOLOSA Natura 2000 sarea zer den argitzen du 'Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak'-ek » 2



Oargi elkartean Xake Txapelketa jokatu zen atzokoan. ESTI EZEIZA

Erregetako Xake Txapelketa Josu Mujikak irabazi du

TOLOSA Mujika ibartarraren atzetik Iñaki Etxeberria eta Sabino Etxeberria sailkatu ziren » 2

JUAN MARITORENA
MENDIZALEA

«Ama Dablam mendi ederra da, baina aldi berean oso tekniko»

LEITZA Maritorenak bertan bizitako gorabeherak eta gogoetak kontatu ditu » 6-7



A. IMAZ



Josu Mujika nagusi xakean

KIROLA • Urtero jokatzeko den Erregetako Xake Txapelketa jokatu zuten atzokoan ere. Oargi elkartearen ziren partidak eta 14 lagunek hartu zuten parte bertan orotara. Irabazlea Josu Mujika ibartarra izan zen. Bi-

garren eta hirugarren Iñaki Etxeberria eta Sabino Etxeberria tolosarrak izan ziren, hurrenez hurren. Xake azkar erara jokatu zen, bost minutuko partidetara eta denak denek kontra lehiatu ziren. E. EZBIZA



Errege doinuak banden eskutik

MUSIKA • Tolosako Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak urtero legez, Erregetako kontzertua eskaini zuten atzokoan Musika Eskolan. Aretoan ikus-entzule ugari gozatu ahal izan zuten bandek eskainitako doi-

nuetz. Emanaldiko lehendabiziko zatian, txistularien bandaok hiru abesti eskaini zituzten. Bigarren zatian, berriz, Musika Bandakoak izan ziren protagonistak, bederatzik abesti jo zituztelarik. E. EZBIZA

Biodibertsitatearen balioaren gogoeta

Kultura • 'Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak' erakusketa ibiltaria gaur helduko da Aranburura, Natura 2000 sarearen eskutik.

ERREDAKZIOA

Donostiatik zuzenean *Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* erakusketa ibiltaria Tolosara helduko da gaur. Hain zuzen ere, Aranburu jauregian izango da ikusgai Natura 2000 sarearen eskutik, igandera arte. Kartoizko panelek osatzen dute erakusketa, baita hainbat altxarik. Plasma pantaila eta ordenagailu eraginkorrak ere topatu ahalko ditu bisitariak. «Irizpide ekologikoei» eraturiko erakusketa dela ziurtatu dute antolatzaileek.

Zer da Natura 2000?

Natura 2000 proiektu bat da. Antolatzaileek azaldu bezala, «denok

osatzeko dugun eta eratzeko eta ezartzeko fasean dagoen, Europako biodibertsitatearen galera geldiarazteko helburu duen Europako proiektu kolektibo eta parte-hartzaile batean esfortzuak nola batu eta laguntzak gehitzeko aukerei» buruzko proiektua da.

Erakusketa honen helburua «Natura 2000 sareari buruz hausnartzea da, baita gure arbasoengandik jaso dugun eta gure osasun, oparotasun eta bizi kalitatearen oinarri den biodibertsitatearen balioaren gogoeta egitea da».

Proiektua ezagutzeko aukera paregabea da erakusketa ibiltaria, eta guztiarentzat irekia dagoela ziur-

tatu dute antolatzaileek. «Biodibertsitatearen kontserbazioa bat egiten dutenen esperientziak ezagutu daitezke erakusketan».

Erakusketan, zortzi modulu ikusgai

Erakusketari ongirotoria aurkezpen moduluak ematen dio. Bertan bigarren arteko elkarriketa batean murgiltzen da bisitaria. Biek biodibertsitatearen inguruko ikuspegi ezberdina dute. «Gaia aurkezteko modu erakargarria da hau», diote Natura 2000ko arduradunek.

Bigarren moduluak, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare naturalaren aberastasuna islatu nahi

» HAINBAT DATU

Zer. 'Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak' erakusketa.
Non. Aranburu jauregian.
Noiz. Gaurtik igandera arte.
Sustatzailea. Nautra 2000 sarearen Euskadin.
Edukia. Zortzi modulu:
■ Aurkezpena.
■ EAren ondare naturalaren aberastasuna.
■ Komuneko sistemaren jokoak.
■ Biodibertsitatea modu sakonagoan ezagutzeko moduluak.
■ Mendi-koadernoak.
■ Liburutegia (iritzia, iradokizunak, ... biltzeko).
■ Produktu ezberdinak.
■ Familia argazkia.

izan dute. Horretarako pista joko bat eskainiko diote ikusleari. *Hiru segidan* izeneko jokoan ere zortzi mehatxu nagusiak ezagutu ahal izango dira, zutabe bakoitza bere irudiarekin eta bere deskribapenarekin lerrotatu beharko direlarik.

Hirugarren moduluak ere mezu bat helarazi nahi du, bizi dugun guztiak komuneko sistema baten parte garela, eta elkarri konektatuta gaudela, hain zuzen ere. Hori ulertzeko, joko bat aurkezten du erakusketak. Elkarri lotuta dauden piezak (animaliak edo landareak) azaltzen dira eta horietako bat kentzen denean alarma bat piztuko da. «Especie horrek gure ongizatean eta bizi kalitatean duen ekarpena erakusten da».

Laugarreneko salto eginez, Euskadin Natura 2000k eskaintzen duen dibertsitatea modu sakonagoan ezagutu daiteke. Halaber, prozesuaren nondik norakoak azalduko ditu bi metro baino gehiago saltatzen dituen igel batek.

Kontsultak egiteko mendi-koadernoak

Bosgarren moduluak metro erdiko altuerako orriak dituen mendi-koaderno kontsulta daiteke, Europako zenbait Natura 2000 lekuetan biodibertsitateak eskaintzen dituen onuretatik bizi eta lan egiten dutenen eskuizkribuekin eta irudiekin, proiektu zehatzak ezagutzeko aukera dago.

Seigarren moduluak, berriz, «apopiloentzat etxe bat eramaten duen abeltzain ingeles bat edota Beskid Niskin ehun kooperatiba batean lan egiten duen kontulari poloniar bat azalduko dira, besteak beste». Hauek Natura 2000ren zatian lan egiten dute eta euren esperientzia kontatuko dute bertan.

Halaber, hainbat produktu dau-

de erakusgai, tartean, Gata lurmurturreko Parke Naturaleko itsas-haztegi batetik ateratako itsas anafora bat, Alpujarretako tapiza edota Urdaibaiko Erreserbako eztiak.

Azkenaren moduluak zalan-tzak argitzeko, erantzunak bilatzeko eta iritzia emateko baliatu dute antolatzaileek. «Biodibertsitatea eta Natura 2000 sareari buruzko liburutegi bat dago bertan, makina bat liburuxka dago bertan, eta baita formatu digitaleko informazioa eskuratzeko terminal informatikoa ere».

Agurtzeko, argazkiarekin

Eta *Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* erakusketa ibiltariari agurra emateko argazkia ateratzeko aukera dago. «Basoilar, orein, drosera, hontza, ... bezalako animalien ondoan argazkia atera daiteke, gure familia direla gogoratzeko».

GAUR, NATURA 2000-REN DIBERTSITATEARI BURUZKO HITZALDIA

Gaur Leire Betetak, ingurumen teknikariak, Natura 2000 sarearen inguruan jardungo du, hitzaldi informatibo-dibulgatzailean. Udako pleno aretoan ariko da Beteta, 19:00etatik aurrera.

Natura 2000 Sarea Euskadin dagoen biodibertsitatearen galera ekiditeko proiektu nagusia da eta oraindik erakitze lanetan dagoen talde erronka ere bada. *Mehatxupean dago jaso dugun natura ondare aberatsa, gure herri identitatearen duten ezaugarriak arriskuan jarrita* izenburu luzea jarri diote hitzaldiari eta bertan Natura 2000ak Euskadin eskaintzen duen dibertsitatea modu sakonagoan ezagutu ahal izango dute bertaraten direnek.

% 30eko deskontua!

neska eta mutil arropa

Skunkfunk Tolosa
Kale Nagusia 21-23

Etor zaitzete SKFF ezagutzera, Skunkfunk-en linea berria

Eguberrietan dastatu daitezkeen gozoen artean asko eta askorentzat preziatuena da errege opila; eskualdeko okindegi eta gozotegi guztietako erakuslehoetan hau topatu zitekeen atzo.

Erregeen erregina, opila

ESTI EZEIZA

Turroiak, mazapanak, polboroiak, intxaur saltsa... asko dira Gabonetan dastatu daitezkeen gozoak, baina denen artean, erregina, Errege opila da. Jende gehiena gozoak jateaz aspertuta dagoenean, izaten da hau erosteko aukera, baina beti egiten zaio tokitxo bat gutuzi honi. Batzuk goizetik hasten dira hau jaten, kafesne batekin, gosari moduan; beste askok berriz, bazkarira arte itxaroten dute, eta Errege egunean, etxe gehienetako postre bilakatzen da. Eta nola ez, arratsaldean ere, berriro errepikatzen dutenak ere izaten dira. Urteko sasoi honetan bakarrik jan ahal izateak, balioa gehitzen dio gainera, Errege opilari, eta inor gutxi geratzen da zaititxo bat gutxienez probatu gabe.

Errege opila, ez da opil arrunta, eta lan asko eskatzen duen gozokia da. Albizturko Ogi-Ona okindegian ongi dakite hori. Abendu-

ren 28rako hasi ziren prestatzen lehen opilak. Beraiek, Frantzian egiten den moduan sukaldatzen dute, hori dela eta, prozesu nahiko luzea izaten du opil bakoitzak.

Duela urte asko hasi ziren modu honetan egiten errege opilak Ogi-Onakoak. Hala, Errege magoei esna eta lanean itxaron behar izaten diete. Familiako hainbat lagun aritzen dira gau guztian zehar lanean, masari forma eman, harrotzen utzi, labean sartu eta apaintzen, besteak beste. Aurten 500 errege opil egin dituzte gutxi gorabehera. Herenegun gauean, 23:30 aldera elkartu ziren familiako zazpi lagun Albizturren duten okindegian, eta 09:00ak aldera arte aritu ziren lan eta lan, hurrengo goizean, saltokietako erakuslehoak beteta egoteko.

Etxeko txikienetik hasi eta helduenak arte, familia giroan eta humorearekin lan egiten dute gau osoan. Joxe Mari Zubizarreta nagusiaren hitzetan, «familian egiten



Albizturko Ogi-Ona okindegioko gau guztian zehar aritu ziren lanean errege opilak prestatzen. HITZA

dugun gaupasa bakarra izaten da Errege Egunaren bezperakoa». Gaua alaitzeko, parrandan dabiltzaneren batzuen bisita ere jasotzen dute urtero. Horrela, hauek izaten dira lehen opilak dastatzeko zortea dutenak.

Gurina, irin indartsua, arrautzak, gatza, azukrea, azahar ura eta limoi ura dira errege opilaren osagai nagusiak. Itxura batean erraza ematen badu ere, ez da horren sinplea hau sukaldatzea. Ongi egiteko, lan eta mimo handiak eskatzen dituen oreka da errege opilarena. Hala ere, zenbaitek etxean egiteko ohitura dute.

Eta, errege opilaren eguna Errege Eguna bada ere, oraindik, aste honetan ere, erosteko aukera izango da ziurren saltoki gehienetan.



Ogi Berri okindegioko erakuslehoia errege opilez beteta zegoen atzo. E. EZEIZA

Giro bikaina Shanti Trofeoko finaleran

Areto futbola » Izurdeak, Trumoi, Denok bat, lurre Taberna eta Seikin Ibarra taldeak izan dira aurtengo txapelketako irabazleak.

ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian amaitu zen Shanti Trofeo. 09:30ean hasita maila ezberdinetako bost final jokatu ziren Usabal kiroldegian. Jende ugari hurbildu zen partidak ikustera eta finalista animatzera. 28. edizio honetan, 600 gaztetxok hartu dute parte txapelketan, eta horietako inor ez zen joan esku hutsik atzokoan etxera, denek jaso baitzuten oparitxo bat.

Lehendabizi, benjamin neskek atera ziren kantzara. Laskorain eta Izurdeak, hain zuzen ere, hemen bigarrenak gailendu ziren, 0-6ko emaitzarekin. Bigarren partida benjamin mutilen kategoriakoa izan zen, Tigre txiki eta Trumoi taldeen arteko partida 1-2an amaitu zen. Jardunaldiko hirugarren norgehiagoka berriro ere nesken artekoa izan zen. Alebinetan, Denok bat-ek Intxurre izan zuen aur-



Partida lehiatua izan zen Galaktikoak eta lurre Tabernak-en artekoa; parte-hartzaileentzat opariak izan ziren. E. EZEIZA



kari eta 3-2an amaitu zen norgehiagoka.

Benjamin mutiletan, bi partida jokatu ziren, lehen aipatutakoa alde batetik, eta 11:45ean hasi zena bestetik. Azken honetan, Galaktikoak eta lurre Taberna taldekoak izan ziren protagonista. Partida lehiatua izan zen hau, eta 3-4an bukatu zen. Trofeoak azken finala alebin mutilena izan zen. Aker gorriak taldekoek ezin izan zuten Seikin Ibarraoen aurka, eta markagailuak 0-2 erakusten zuenean bukatu zen partida.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Bi haur txiki zaintzeko, emakume euskaldun bat behar da. Harremanetarako telefono zenbakia: 652 74 74 23.



GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamara.** Samsung markako argazki makina digitala galdu zen Azkarate eta Bedaio arteko bidean. Aurkitu duenak deitu de-

zala 605 70 00 75 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Mahaia.** Jangelarako egurrezko mahaia (gainazala kristala) eta dagokion sei aulki salgai. Neurria 120.180 zentimetroko luzera, 90 zentimetroko zabalera eta 76ko altuera. Telefono zenbakia: 699 46 76 54.



Gko arte galeria Tolosako udaltxearen ondoan aurkitzen da, Kale Nagusia 4 helbidean. Urtarrilaren 30era bitarte Igor Obesoren beirazko 'Aquatika' bilduma egongo da bertan ikusgai.

Beirazko itsasoa aurkitzen da GKo-n

Tolosa » Igor Obesoren 'Aquatika' bilduma ikusgai dago Gko arte galerian. Iruran lan egiten duen beiragileak 40 artelan jarri ditu bertan.

ASER IMAZ

Tolosako udaltxearen ondoan Gko arte galeria aurkitzen da. Urtarrilaren 30era bitarte Igor Obesoren Aquatica erakusketarekin egongo da bertan ikusgai, 10:30etik 13:30era eta 17:00etik 20:00etara.

Itsasoa ardatz hartuta

Obesok artista moduan lantzen du beira eta Gko bere lanaren leku biltzat du. «Bilduma moduko bat egiten dut, itsasoaren inguruan. Aquatico izeneko erakusketan itsas munduan aurkitzen diren hainbat gauza bildu ditut: arrai-

nak, algak, txipiroiki... batzuk modu abstrakian aurkitzen dira eta beste batzuk errealtatzen. Forma eta kolore desberdinak nahastu ditut eta guztiak 40 artelan inguru aurkitzen dira egun hauetan Gko galerian. Batzuk lanpara moduan daude, beste batzuk lodro bezala eta gehienak pieza osoak dira».

Tolosan bizi den artista herriari bere lanak aurkezten duen gauza eta horregatik jarri du erakusketari Gko galerian. Bertan beirarekin egiten duen «forma bixiak, normalean aurkitzen dira errenko-ikusketako aukerak dago Obeso jakitua da Euskal Herriaren eskulturaren munduan beste material batzuen garrantziaz, bainaberak «aukeratutako gehiago» jarri nahi izan du mahaiaren gainean, «beira ere hor baitago».

Beiraren magiarekin ilustratuta

Duela 12 urte hasi zen beirarekin lanean Igor Obeso. Donostian, Madrilen, Murtzian... bere lanak

ikusgai egon dira. Ogi bidea artearen munduarekin lotu du eta emaitzak Tolosan aurkitzen dira urtarilaren 30a bitarte. Izan ere, inajirazio horren emaitzekin osatu du Aquatico bilduma.

Igor Obesok herriartar gabi-datu nahi izan ditu Gko-ra: «Denbora picca bat izanez gero, artelan batzuk ikustera hurbiltzeko eskatuko nioke herriartari modu artistikoan. Beiraren magiarekin eta lotu daitezkeen formekin ilustraturik gedituko dira».

Elkarrizketa

IGOR OBESO | Artista

Tolosa » Igor Obesok beirarekin eskulturak egiten ditu Irurako tailerrean. Itsasoarekin lotura duten bere azken artelanak, Tolosako Gko galeria alternatiboa daude.

ASER IMAZ

Bost urte daramatza Tolosan bizitzeko Igor Obesok (Hondarribia, 1973). Beira artisa erian lantzen du Irurako Argia Badago tailerrean. Ogi bidea izateaz gain, artelanak egiten ditu material garden honekin. Tolosako Gko galerian Aquatico izeneko erakusketari jarri du.

Nola lantzen duzu beira?
Artista moduan. Labe batean beira urtu egiten dut eta ondoren kanabera batzuen bitartez forma ematen dieratu egiaz.

Nola hasi zinen beirarekin artelanak egiten?
Beirarekin lan egitea da nire bizi-modua. Duela 12 urte hasi nintzen lan honekin, gehienbat mandatuak egiten. Pixkanaka teknika lantzen joan naita eta beirarekin eskulturak egiteaz gain niri buruzten zintzaikiak ere egiten hasi nintzen. Eskuratu gain egiten ditundun beste lan horiek eraman ditut erakusketara.

Bien artean ba al dago orekarik?
Nire kasuan, bata beti besteraren ondoan doa. Bizitzeko ematen dituna enkarguak dira eta horretan pasatzen dut denbora gehien. Erakusketak egiten dituztenean saltezen dugu, baina ez naiz hori bakarrik eginez bizi den pertsona bat.

Zergatik daude zure lanak Tolosako Gko galerian?
Badira bost urte Tolosan bizi naizela. Herrian erakusketak bat egiteko gogo naiz eta egia oso ez dago. Lanak erakutsi nahi izaten ditut eta datu baturak ematen zidaten aukera.

Galeria alternatibo hauek nolako argina dute?
Lezio bat gehiago dira. Eskultura erakusketak oso guzti daude hemen, gehienak margularitzaren munduan mugitzen dira Euskal He-



«Ez dago inspirazio magikorik, eguneroko lanak sortzen ditu ideiak»

«Ez dago inspirazio magikorik, eguneroko lanak sortzen ditu ideiak. Inspirazio magikorik ez dago, lanaren ondorioa da. Beirarekin lan egiten duten artelanetan, zein dira zure gustukoak? Amerikako Estatu Batuetan bizi den Dale Chihuly edo Lewinsky txeikarra. Chihulyk guzua oso handiak egiten ditu. Kolore asko eta forma zahar desberdinak erabiltzen ditu; beirazko objektu merkeak nahastu du eta kanpion jartzeko instalazioak dira bere lanak. Lewinskyk pieza geometrikoak egiten ditu, bolumena eta konplexutasunak. Oso desberdinak dira biek lanak. **Hauekin harremanik eduki al duzu?** Chihulyrekin ez naiz Lewinsky Txeikin ezagutu nuen. Ahal dudana guztietan hara joaten naiz, bertan talde argi aurkitzen baitira. Beirarekin lan egiten dute artista ugari daude eta lan biltzen naiz guzuzk nola egiten dituzten ikustera irakusten.

«Ez dago inspirazio magikorik, eguneroko lanak sortzen ditu ideiak»

«Ez dago inspirazio magikorik, eguneroko lanak sortzen ditu ideiak»

«Ez dago inspirazio magikorik, eguneroko lanak sortzen ditu ideiak»

HITZAK bi sarrera pare ditu

AKABA BERA BERA BM RIBARROJA

Urtarrilak 9 • Larunbat • Bidebetea kirologia

HITZAK bi sarrera pare ditu

Juan M* Beltranek eskainiko duen ikuskizunetarako

Urtarrilak 9 • Larunbat • 20:30ean Tolosako Lezea aretoan

sarrerak

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

E **Elkarrizketa**

JUAN MARITORENA > Mendizalea

Leitza » Juan Maritorea lagun, urratsez urrats Ama Dablam mendia igoko dugu ondoren; bere bizipenak eta gogoetak izango dira jarraitu beharreko arrastoak.

ASIER IMAZ

Himalayako Ama Dablam (6.812m) mendia igo zuen Juan Maritorenak (Leitza, 1970) 2009ko azaroaren 6ean. Hiru euskaldunekin batera iritsi zen tontorrera. Bertan bititakoa eta sentitua kontatu dizkigu leitzarrak.

Bidaia-Nola iritsi zineten Euskal Herritik Himalayara?

Lehen hegazkina Bilbon hartu genuen eta honek Frankfurt-era, Alemaniara, eraman gintuen. Ondoren, Frankfurt-Delhi (India) eta Delhi-Katmandu (Nepal) egin genituen. Hemen abioneta txiki bat hartu eta Luklanera iritsi ginen, hemendik abiatzen dira espedizio guztiak.

Gogoeta- Hotza, altuera, gogortasuna... nolako esperientzia izan zenuten arlo horretan?

Hasieran alturarekin nahiko lan. Girotzeko prozesuan edo trekking-a egiten, lehen astean Island Peak (6.173m) igo genuen. Oso azkar. Buruko minak orduan sumatzen dira.

Zergatik hain azkar?

Horrela aurreikusitua genuen. Ez da normala baina Ama Dablam-en ez genuen girotzetik edo trekking-ik egin nahi, oso mendi teknikoak delako. Zenbat eta denbora gutxiago egon mendi horretan orduan eta hobe.

9. eguna- Behin Island Peak-eko tontorra egin ondoren zer egin zenuen?

Behera jaitsi ondoren Ama Dablam-eko kanpamendu nagusira abiatu ginen.

Gogoeta- Iraila eta urria izaten omen dira data egokienak Ama Dablam igozteko. Zuek aldiz, azaroan joan zineten.

Horrela da. Azkenekotakoak ginen gu eta egia esan, zorte handia eduki genuen eguraldiarekin. Iraila amaieran adibidez, oso eguraldi txarra eduki zuten. Gure kasuan hotz gehiago egiten zuen baina giro hobea. Montzoiak atzeratzen ari direla ere esaten dute eta...

11. eguna- Zer aurkitu zuten Ama Dablam-eko kanpamenduan?

Espedizio ugari. Baina oinarriko kanpamendu oso eroso da: zelai handi bat, belardi bat, erreka bat... Island Peak-ekoa adibidez oso altu dago, 5.100 metroan, iritsi eta segituan egundoko kazkarrekoa ematen dizu; haizetsua eta hauts asko dago gainera. Hemen berriz, 4.600 metroan, oso eroso sentitu ginen.



HITZA

«Oinarrizko kanpamendura jaistean hasten zara gozatzen»

Gogoeta- Nola moldatu zineten beste espedizioko kideekin?

Nazioarteko espedizio baten barruan sartuta joan ginen, alemaniar batzuekin, baimenak konpartitzeko etab. Trekking-ean ibili ginen bitartean eurek tontorrari heldu zioten. Oinarrizko kanpamendura iristean, tontorrera igo eta bueltan zetozen.

2. astea- Zer egin zuten ondorengo egunetan?

Iritsi eta hiru egun kanpamenduan pasa genituen lasai, 4.600 metroan. Laugarren egunean lehenengo kanpamendura joan ginen. Denda, janaria, gasa... eraman genituen. Hemen beste bigau pasa genituen bakar bakarrik, 5.700 metroan. Ondoren dendak jarririk utzi eta berriro behera jaitsi ginen. Han beste hiru egun igaro genituen, klimara ongi egokitzea oso garrantzitsua baita.

Gogoeta- Egundoko hauetan nolako eguraldia eduki zenuen?

Oso ona. Trekking-eko garaian beti eguraldi ona egin zigun. Behin jaisten ari ginela hasi zen txartzten. Zorte handiagorik ezin eduki! **Lehen kanpamendua- Atsedean hartu ondoren berriro denda kokorera.**

Bai. Tontorra egiteko asmoz abiatu ginen lehen kanpamendura. Bertan aurrez bi egun pasa geni-

tuen. Handik ederki ikusten da goruntza egin beharreko bidea eta bi egun horietan batzuk igotzen eta besteak jaisten ikusi genituen. Gu berriz hantxe, haiei begira. Zalan-tza unea izaten da, ea zuk zer egin-godo duzun, nola joango zaren, gai ote zaren edo ez, etab.

Lehendabiziko kanpamendura iritsi eta hurrengo egunean bigarrenez abiatu ginen.

Gogoeta- Zer moduz egiten da lo altuera horietan?

Lo? Hor ez da lorik egiten. Atsedena kanpamendu nagusian bakanerrik hartzen duzu. Hor berriz, lo gutxi, jan gutxi eta amasa hartzeko zailtasunak. Lehen esan bezala, zenbat eta denbora gutxiago egon hor, hobe.

Bigarren kanpamendua- Argazkietan ez da leku handirik ikusten.

Zorte handia izan genuen, iritsi eta lekua aurkitu baikeuen. Etzegen ezertarako tokirik bigarren kanpamenduan. **Eta hemen, gaupasa egin eta hirugarrenaren bila edo jada tontorra zenuen buruan?**

Zuzenean gora abiatu ginen. 01:30ean irten ginen eta arin joan nahigenuen, xerparen laguntzarik ez baikeuen. Oinarrizko kanpamendura joateko bagenuen bere laguntza baina tontorra gure kabuz zapaldu nahigenuen.

Gogoeta- 01:30ak. Gora begiratu eta zerua erabart argi.

Bai. Izarrak ere gertuago ikusten dira gainera. Hala ere, unerik lantzena nire ustez, egunsentiko hotz hori izan zen. Eguzkia atera aurretik izugarriko hotza egiten zuten.

Atzera bueltatzerik pentsatu al zenuen?

Ez. Oso ongi nengoen eta oro har eguraldi oso ona egiten zuen. Baina hori argi izatea oso garrantzitsua da. Justu antzean baldin bazabiltza ez duzu ahaztu behar gero jaitsi egin behar dela. Horrelako mendietan hanka sartzea erraza da; «ia hemen nagoenez», «behin hona etorrira...». Kontuz ibili behar da.

Ama Dablam- Tontorra gero eta gertuago.

Gauetz irten eta 12:30ean iritsi ginen tontorrera. Ikuspegi zoragarria dagoela esaten dute; Everest, Makalu, Cho-Oyu... baina iristear ginenean lainoa sartu eta atera hasi zen eta ez genuen nahi bezain beste gozatu. Gailurrean argazkiak atera, 30-40 minutu igaro eta behera.

Ba al dago zerbait tontorrean?

Xerpek jartzen dituzten errezu banderak.

Gogoeta- Xerpen mito hori benetakoa al da? Hain erraz ibiltzen al dira?**» DI-DA BATEAN**

- **Mendi bat?** Lakora, Belaguan.
- **Mendizale bat.** Mikel Zabalza iruindarra.
- **Mendikate bat?** Pirinioak.
- **Mendirajateko ahaztu behar ez dena?** Txanoa, betaurrekoak eta eskularruak.
- **Eta ahaztu behar dena?** Arazoak.
- **Udan hondartzara ala mendira?** Niregatik mendira baina besteek badakizu, hondartzara nahiago duten.
- **Zein mendi igotzea gustatuko litzaizuke?** Alpamayo (Peru).
- **Zergatik?** Beste mendi eder bat delako.
- **Norekin?** Nire emaztearekin.
- **Hurrengo helburua?** Oraindik ez dakit, baina izanen da besteren bat, ziur.

Bai, bai, neurrigabea da gainera. Altuerako arrazabat da. Munduan klimara egokitzeko beharrik ez duten arraza bakarra direla esaten da. Ketsuak adibidez, jaisten baldin badira girotu egin behar izaten dute ondoren igotzen direnean, baina hauek ez. Gurekin trekkingean egon zen xerpa bost aldiz egondu zen Everestean, lanean, eta orain bere semea zebilela esan zigun. Izugarria da.

Zuek ezinean eta beraiek...

Igotzen ari ginenean japoniar talde bat ere goruntza zihoa xerpekin. Korrika ez dizut esango baina gu hemen, kalean, bezala ibiltzen zen xerpa, ttipi-tapa ttipi-ttapa. Gu berriz pauso bat emateko nahiko lanekin. Genetikoki izugarriak dira eta gainean eramaten dutena kontutan hartzen bada...

Tontorra- Jaistea falta orain.

Askotan galdetu ohi dute ea zer sentitu edo pentsatu zihoa tontorrean etab. Baina egia esan, une horretan nola jaitsi pentsatzen hasten zara. Oinarriko kanpamenduan arropa kentzean gozatzen duzu egindakoaz.

Zuzenean behera edo bigarren kanpamendura, denda txikira?

Bigarrenean baina beste istorio batetik. Gainera, taldeko bik denda huts batean pasa zuten gasa eta erosoago egon ginen. Han dendaren bat hutsik topatzen baldin baduzu bertan sartu zaitezke.

Behin gaua pasa eta zuzenean lehenengo kanpamendura abiatu ginen. Han genuen dendabildu eta egun berean oinarriko iritsi ginen.

Itzulera- Ondorengo egunetan zer egin zenuen?

Hiru egun inguru genituen eta Katmandura ez joategatik, Nepal hegoaldera joan ginen, Indiaren ondoan dagoen oihañera. Ondoren hegazkina hartu eta berriro etxera.

Gogoeta- Leitzatik orain nola gozartzen duzu dena?

Oso pozik. Bi seme alaba ditut eta hauek ikusteko irrikaz itzuli nintzen. Behin tontorra egiten duzunean honant begira jartzen zara.



Goian ezkerrean, Ama Dablam-eko oinarritzko kanpamenduan euskal mendizaleak. Goian eskuinean, lehenengo kanpamenduan Juan Maritoren leitzarra, atzean Ama Dablam-en tontorra duela. Beheran ezker aldean, bigarren kanpamenduaren baldintza arriskutsuak. Beheran eskuinean, xerpa bat zamalanak egiten egundoko pisua gainean daramala. HITZA

Ama Dablam mendiari begira

Leitza » Juan Maritoren mendizaleak Himalayako mendia azaroaren 6an igo zuen hiru euskaldunekin batera.

ASIER IMAZ

Euskal Herritik Himalayara lau euskaldun joan ziren iragan urte amaieran, azaroan. Horien artean Juan Maritoren leitzarra aurkitzen zen. Alemaniako espedizio batekin osatu zuten taldea, «baimenak errazago lortzeko». Izan

ere, arlo ekonomikoak eta burokratikoak paper garrantzitsua jokatzen dute horrelako irteeretan. Maritorenaren kasuan Aurrera Elkartearen laguntzatxo bat, kamisetak saltzen ateratakoa eta poltsikotik jarritakoa izan ziren finantziario iturriak.

Behin etxera itzulita, Leitzara, oso pozik ikusten du Maritorenak orduan egindakoa. Aurrera begira jarrita, Mendibil Mendi Taldean lanean jarraitzeko asmoa dauka, urte berria indar berriz hasteko asmoz.

Ama Dablam, igoera teknikoa
Espedizioaren helburua Ama Dablam (6.812m) mendiaren tontorra zen, «igoera oso teknikoa: eskalada pausoak, lehenengo parte harkaitz oso bertikala, goiko parte-

an izotza eta elurra, 60 graduko inklinazioa, altueraren zailtasuna...», baina hori bai, zortea izan zuten eta oso eguraldi ona eduki omen zuten.

Mendibil Mendi Taldea

Espedizioaren balantzea egitearekin batera, Juan Maritorenak hurrengo erronka herrian duela onartzen du: Mendibil Mendi Taldea.

Azken irteeretan nahi baino jende gutxiago joan da Mendibilekin

baina aurrera begira jarri beharra dago eta mantentzen ahaleginduko direla aipatzen du leitzar mendizaleak: «Gutziz gustukoa dugu mendia eta horren inguruan saiatzen gara gauzak antolatzen. Aurretik ere ahalegin bat egiten jarraitu beharko dugu».

Ondorengo asteetan urteko plangintza egiteko asmoa omen dauka Leitzako mendi taldeak eta bidez batez, herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte ekimen honetara.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

